



NAFARROAKO PARLAMENTUKO

ALDIZKARI OFIZIALA

X. legegintzaldia

Iruña, 2021eko urriaren 29a

123. ZK.

A U R K I B I D E A

E S A I L A:

Interpelazioak, mozioak eta adierazpen politikoak:

—Adierazpen instituzionala, zeinaren bidez Nafarroako Parlamentuak bat egiten baitu Hartutako Kalte Zerebralaren Nazioarteko Egunaren ospakizunarekin. Eledunen Batzarrak onetsia (3. or.).

F S A I L A:

Galderak:

- Galdera, Elizondoko zahar-etxekeo bizikideen osasun-arretari buruzkoa. Cristina Ibarrola Guillén andreak egin du (4. or.).
- Galdera, Espainian dauden Atzerritarren eskubide eta askatasunei eta haien gizarteratzeari buruzko 4/2000 Lege Organikoaren Erregelamenduaren aldaketari buruzkoa. Blanca Isabel Regúlez Álvarez andreak egin du (4. or.).
- Galdera, gripearen aurkako txertoaren eta COVID-19aren aurkako txertoaren hirugarren dosia batera jartzeko kanpainari buruzkoa. Patricia Fanlo Mateo andreak egin du (5. or.).
- Galdera, batxilergoa, erdi mailako heziketa zikloak eta gizarte garantiako programak irakasten dituzten gizarte ekimeneko ikastetxeen finantzaketa publikoa arautzen duen uztailaren 3ko 11/1998 Foru Legea aldatu zuen urriaren 19ko 17/2012 Foru Legea aldatzeko Foru Lege proposamena dela-eta Gobernuak azaldutako desadostasunari buruzkoa. María Roncesvalles Solana Arana andreak egin du (6. or.).
- Galdera, urriaren 12ko zubia dela-eta N-121-A errepiderako egin diren aurreikuspenei buruzkoa. Isabel Olave Ballarena andreak egin du (7. or.).
- Galdera, bertako inongo enpresatan jomuga ez duten zama-ibilgailuak Garraioaren Hirira sartzeari buruzkoa. Francisco Pérez Arregui jaunak egin du (7. or.).
- Galdera, administrazio-egoera irregularrean dauden pertsonen fakturazioaz informatzeko esku-orriei buruzkoa. Jorge Esparza Garrido jaunak egin du (8. or.).
- Galdera, administrazio-egoera irregularrean egon eta musikak eta botikak jaso dituzten pertsonen buruzkoa. Jorge Esparza Garrido jaunak egin du (8. or.).
- Galdera, COVID-19aren berrinfekzio kasuei buruzkoa. Cristina Ibarrola Guillén andreak egin du (9. or.).

- Galdera, espetxe-osasungintzan Nafarroako Gobernuak egindako gastuari buruzkoa. Cristina Ibarrola Guillén andreak egin du (9. or.).
- Galdera, Valle del Roncal Ezintasunaren Arreta Integralerako Zentroa berritzeko proiektuari buruzkoa. Marta Álvarez Alonso andreak egin du (10. or.).
- Galdera, El Vergel Egoitza berritzeko proiektuari buruzkoa. Marta Álvarez Alonso andreak egin du (11. or.).
- Galdera, Elizondoko Francisco Joaquín Iriarte Egoitzaren berritzeko lanei eta finantzaketari buruzkoa. Marta Álvarez Alonso andreak egin du (11. or.).
- Galdera, Irunberriko San Isidro Egoitza berritzeko proiektuari buruzkoa. Marta Álvarez Alonso andreak egin du (12. or.).
- Galdera, Santo Domingo Egoitza berritzeko proiektuari buruzkoa. Marta Álvarez Alonso andreak egin du (13. or.).
- Galdera, Baztango Udalak antolatutako “Berdintasuna eta genero ikuspegia toki entitateen politika publikoetan. Ikastaro praktikoa” izeneko ikastaroari buruzkoa. Isabel Olave Ballarena andreak egin du (14. or.).
- Galdera, Beola auzoko lotunerako konponbide teknikoari buruzkoa. Isabel Olave Ballarena andreak egin du (14. or.).
- Galdera, Vianako Andre Maria eliza zaharberritzeko obrei buruzkoa. Maiorga Ramírez Erro jaunak egin du (15. or.).
- Galdera, enplegu inklusiboko ekimenak aurkezteko eta gauzatzeko epeari buruzkoa. María Isabel García Malo andreak egin du (16. or.).
- Galdera, Nafarroako Enplegu Zerbitzuko enplegu inklusiboko ekintzaren eskari- eta gastu-aurreikuspenei buruzkoa. María Isabel García Malo andreak egin du (16. or.).
- Galdera, enplegu-zentro berezientzako laguntzen zenbatekoari eta irizpideei buruzkoa. María Isabel García Malo andreak egin du (17. or.).
- Galdera, enplegu-zentro berezientzako laguntzak ebazteko eta ordaintzeko datei buruzkoa. María Isabel García Malo andreak egin du (17. or.).
- Galdera, enplegu-zentro berezientzako laguntzetarako partiden aurrekontu-aldaketei buruzkoa. María Isabel García Malo andreak egin du (18. or.).
- Galdera, “COVID-19a. Enplegu-zentro berezientzako laguntzak” partidarako aurreikusitako jarduketei buruzkoa. María Isabel García Malo andreak egin du (19. or.).
- Galdera, haur eta gazteen osasun mentala artatzeko psikiatren agendak berrantolatzeari buruzkoa. Cristina Ibarrola Guillén andreak egin du (19. or.).

E saila:
INTERPELAZIOAK, MOZIOAK ETA ADIERAZPEN POLITIKOAK

Adierazpen instituzionala, zeinaren bidez Nafarroako Parlamentuak bat egiten baitu Hartutako Kalte Zerebralaren Nazioarteko Egunaren ospakizunarekin.

ELEDUNEN BATZARRAK ONETSIA

Nafarroako Parlamentuko Eledunen Batzarrak, 2021eko urriaren 25ean egindako bilkuran, honako adierazpen hau onetsi zuen:

“1. Nafarroako Parlamentuak bat egiten du Hartutako Kalte Zerebralaren Nazioarteko Egunaren ospakizunarekin. Hartara, ekitaldi bat egingen

du atalondoan urriaren 26an, 12:00etan, Hiru Hamabi elkartearekin batera.

2. Parlamentuak kolore urdinez argiztatuko du bere fatxada urriaren 26an”. (10-21/DEC-00067).

Iruñean, 2021eko urriaren 25ean

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

F saila:
GALDERAK

Galdera, Elizondoko zahar-etxeke bizikideen osasun-arretari buruzkoa.*CRISTINA IBARROLA GUILLÉN ANDREAK EGIN DU*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2021eko urriaren 25ean egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Cristina Ibarrola Guillén andreak Elizondoko zahar-etxeke bizikideen osasun-arretari buruz aurkeztutako galdera.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osasun Batzordean izapidetzea.

Iruñean, 2021eko urriaren 25ean

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Gorteetako kide den eta Navarra Suma talde parlamentarioari atxikia dagoen Cristina Ibarrola Guillén andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau aurkezten du, Nafarroako Gobernuako Osasuneko kontseilariak Osasun Batzordean ahoz erantzun dezan:

Osasun Departamentua nola ari da bermatzen Elizondoko zahar-etxeke bizikideen osasun-arreta?

Iruñean, 2021eko urriaren 18an

Foru parlamentaria: Cristina Ibarrola Guillén

Galdera, Espainian dauden Atzerritarren eskubide eta askatasunei eta haien gizarteratzeari buruzko 4/2000 Lege Organikoaren Erregelamenduaren aldaketari buruzkoa.*BLANCA ISABEL REGÚLEZ ÁLVAREZ ANDREAK EGIN DU*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2021eko urriaren 25ean egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Blanca Isabel Regúlez Álvarez andreak aurkeztutako galdera, Espainian dauden Atzerritarren eskubide eta askatasunei eta haien gizarteratzeari buruzko 4/2000 Lege

Organikoaren Erregelamenduaren aldaketari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2021eko urriaren 25ean

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Geroa Bai talde parlamentarioari atxikitako foru parlamentari Blanca Regúlez Álvarez andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau aurkezten du, Nafarroako Gobernuko Migrazio Politiketako eta Justiziako kontseilariak Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan:

Espanian dauden Atzerritarren eskubide eta askatasunei eta haien gizarteratzeari buruzko 4/2000 Lege Organikoaren Erregelamendua aldatzen duen urriaren 19ko 903/2021 Errege Dekre-

tuaren babesean, zeina apirilaren 20ko 557/2011 Errege Dekretuaren bidez onetsi zen 3/2009 Lege Organikoaren bidez aldatu baitzen,

Gobernuak zer balorazio egiten du erregelamendu bidezko aldaketa horri buruz, Foru Administrazioaren tutoretzapeko adingabe atzerritar bakarrik daudenei egoiliar-baimena adindun bihurtzen direnean emateari –egoiliar-baimenaren titularrak izan ala ez– dagokionez?

Iruñean, 2021eko urriaren 20an

Foru parlamentaria: Blanca Regúlez Álvarez

Galdera, gripearen aurkako txertoaren eta COVID-19aren aurkako txertoaren hirugarren dosia batera jartzeko kanpainari buruzkoa.

PATRICIA FANLO MATEO ANDREAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2021eko urriaren 25ean egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Patricia Fanlo Mateo andreak aurkeztutako galdera, gripearen aurkako txertoaren eta COVID-19aren aurkako txertoaren hirugarren dosia batera jartzeko kanpainari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2021eko urriaren 25ean

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Alderdi Sozialista talde parlamentarioari atxikitako Patricia Fanlo Mateo andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau aurkezten du, Osasuneko kontseilariak Osoko Bilkuran ahoz erantzun diezaion:

Gripearen aurkako txertoaren kanpaina urriaren 25ean abiaraziko da Nafarroan, eta aurten ezohiko zertzelada batekin dator: COVID-19aren aurkako txertoaren hirugarren dosiarekin batera jarriko zaie 70 urtetik goitikoei eta arrisku oso handiko herritarrei.

Nola ari da gauzatzen gripearen aurkako txertoaren eta COVID-19aren aurkako txertoaren hirugarren dosia batera jartzeko kanpaina?

Iruñean, 2021eko urriaren 21ean

Foru Parlamentaria: Patricia Fanlo Mateo

Galdera, batxilergoa, erdi mailako heziketa zikloak eta gizarte garantiako programak irakasten dituzten gizarte ekimeneko ikastetxeen finantzaketa publikoa arautzen duen uztailaren 3ko 11/1998 Foru Legea aldatu zuen urriaren 19ko 17/2012 Foru Legea aldatzeko Foru Lege proposamena dela-eta Gobernuak azaldutako desadostasunari buruzkoa.

MARÍA RONCESVALLES SOLANA ARANA ANDREAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2021eko urriaren 25ean egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea María Roncesvalles Solana Arana andreak aurkeztutako galdera, batxilergoa, erdi mailako heziketa zikloak eta gizarte garantiako programak irakasten dituzten gizarte ekimeneko ikastetxeen finantzaketa publikoa arautzen duen uztailaren 3ko 11/1998 Foru Legea aldatu zuen urriaren 19ko 17/2012 Foru Legea aldatzeko Foru Lege proposamena dela-eta Gobernuak azaldutako desadostasunari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2021eko urriaren 25ean

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Geroa Bai talde parlamentarioko foru parlamentari María Roncesvalles Solana Arana andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau aurkezten du, Nafarroako Gobernuko Hezkuntzako kontseilariak Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan:

2021eko irailaren 23an, Izquierda-Ezkerrak foru Lege proposamen bat aurkeztu zuen, aldatzeko urriaren 19ko 17/2012 Foru Legea, zeinaren bidez aldatu egiten baitzen uztailaren 3ko

11/1998 Foru Legea, Batxilergoa, erdi mailako heziketa zikloak eta gizarte garantiako programak irakasten dituzten gizarte ekimeneko ikastetxeen finantzaketa publikoa arautzen duena.

Foru lege proposamenak 17/2012 Foru Legearen xedapen gehigarri bakarraren 3. apartatua kentzea proposatzen du. Apartatu horren arabera, Nafarroako Gobernuak, modu arrazoituan, itunak luzatzea erabaki dezake, bermatzeko —hori izanen du ondorio bakarra— orain ikastetxeotan matrikulatuta dauden ikasleek bertan jarraitu ahal izanen dutela, ikasten ari diren derrigorrezko hezkuntza etapak amaitu arte.

Nafarroako Gobernuak desadostasuna adierazteko erabakian dio ados dagoela “xedapen gehigarri bakarraren 3. apartatuaren bidez lortu nahi den helburuarekin, uste baitugu neurri garantista bat dela itunpeko ikastetxeetan derrigorrezko hezkuntza-etapetako ikasketak jada hasi dituzten ikasleentzat, eta ez dela komeni ikasle horiek matrikula egin zuten unean zeuden baldintzak aldatzea”.

Bada, ikusita ez dela inolako arau zehatzik aipatzen erabaki hori hartzeko, honako galdera hau egiten diogu Hezkuntzako kontseilariari, ahoz erantzun dezan:

Zer argudio juridikotan oinarritzen da “ez dela komeni ikasle horiek matrikula egin zuten unean zeuden baldintzak aldatzea” esaldia?

Iruñean, 2021eko urriaren 21ean

Foru parlamentaria: M.^a Roncesvalles Solana Arana

Galdera, urriaren 12ko zubia dela-eta N-121-A errepiderako egin diren aurreikuspenei buruzkoa.

ISABEL OLAVE BALLARENA ANDREAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2021eko urriaren 25ean egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Isabel Olave Ballarena andreak aurkezturiko galdera, urriaren 12ko zubia dela-eta N-121-A errepiderako egin diren aurreikuspenei buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 194. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2021eko urriaren 25ean

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Gorteetako kide den eta Navarra Suma talde parlamentarioari atxikita dagoen Isabel Olave Ballarena andreak, Legebiltzarraren Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, galdera hau aurkezten dio Lurralde Kohesiorako kontseilariari, idatziz erantzun dakion.

Kontuan hartuta urriaren 12ko zubia, departamentuak zergatik ez zuen N-121-A errepideko obraren gaineko aurreikuspena egokitu, zubi hori hasi zenetik gertatzen ari diren auto-ilarak ekiditeko?

Nafarroan, 2021eko urriaren 15ean

Foru parlamentaria: Isabel Olave Ballarena

Galdera, bertako inongo enpresatan jomuga ez duten zama-ibilgailuak Garraioaren Hirira sartzeari buruzkoa.

FRANCISCO PÉREZ ARREGUI JAUNAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2021eko urriaren 25ean egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Francisco Pérez Arregui jaunak aurkezturiko galdera, bertako inongo enpresatan jomuga ez duten zama-ibilgailuak Garraioaren Hirira sartzeari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 194. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2021eko urriaren 25ean

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Gorteetako kide eta Navarra Suma talde parlamentarioari atxikitako Francisco Pérez Arregui jaunak, Legebiltzarraren Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, galdera hau aurkezten dio Lurralde Kohesiorako kontseilariari, idatziz erantzun dakion.

Ba al dakizu Garraioaren Hirira zama-ibilgailurik sartzen ote den, bertako inongo enpresatan jomuga ez duenik? Hala bada, zer ibilgailu dira? Zein izan da Garraioaren Hiriaren jokabidea?

Nafarroan, 2021eko urriaren 15ean

Foru parlamentaria: Francisco Pérez Arregui

Galdera, administrazio-egoera irregularrean dauden pertsonen fakturazioaz informatzeko esku-orriei buruzkoa.

JORGE ESPARZA GARRIDO JAUNAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2021eko urriaren 25ean egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Jorge Esparza Garrido jaunak aurkezturiko galdera, administrazio-egoera irregularrean dauden pertsonen fakturazioaz informatzeko esku-orriei buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 194. artikulua agintu-takoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2021eko urriaren 25ean

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Gorteetako kide den eta Navarra Suma (NA+) talde parlamentarioari atxikia dagoen Jorge Esparza Garrido jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hauek aurkeztu ditu, Migrazio Politiketako eta Justiziako kontseilariak idatziz erantzun ditzan:

1.- Migrazio Politiketako eta Justiziako Departamentuak administrazio-egoera irregularrean dauden pertsonen fakturazioaz informatzeko esku-orriak prestatu ditu. Zenbat esku-orri inprimatu dira?

2.- Zer hizkuntzatan? Zenbat ale hizkuntza bakoitzean?

3.- Zenbat osasun etxetan banatu dira?

Iruñean, 2021eko urriaren 18an

Foru parlamentaria: Jorge Esparza Garrido

Galdera, administrazio-egoera irregularrean egon eta musikak eta botikak jaso dituzten pertsonen buruzkoa.

JORGE ESPARZA GARRIDO JAUNAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2021eko urriaren 25ean egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Jorge Esparza Garrido jaunak aurkezturiko galdera, administrazio-egoera irregularrean egon eta musikak eta botikak jaso dituzten pertsonen buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 194. artikulua agintu-takoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2021eko urriaren 25ean

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Gorteetako kide den eta Navarra Suma (NA+) talde parlamentarioari atxikia dagoen Jorge Esparza Garrido jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hauek aurkeztu ditu, Migrazio Politiketako eta Justiziako kontseilariak idatziz erantzun ditzan:

1.- Nafarroako 2021eko Aurrekontu Orokorretan partida bat aurreikusi zen hitzarmen bat egin eta administrazio-egoera irregularrean dauden pertsonen musukoak eta botikak emateko. Pertsona horietako zenbat izan dira onuradunak?

2.- Zehaztu zenbat erabili den musukoetarako eta zenbat botiketarako.

Iruñean, 2021eko urriaren 18an

Foru parlamentaria: Jorge Esparza Garrido

Galdera, COVID-19aren berrinfekzio kasuei buruzkoa.

CRISTINA IBARROLA GUILLÉN ANDREAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2021eko urriaren 25ean egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Cristina Ibarrola Guillén andreak COVID-19aren berrinfekzio kasuei buruz aurkezturiko galdera.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 194. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2021eko urriaren 25ean

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Navarra Suma (NA+) talde parlamentarioari atxikita dagoen Cristina Ibarrola Guillén andreak,

Legebiltzarren Erregelamenduaren 14. artikuluan ezarritakoaren babesean, galdera hau aurkezten du, idatziz erantzun dakion:

Osasun Departamentuaren erregistro eta datu-iturrien arabera, posible al da jakitea Nafarroan zenbat pertsona berrinfektatu diren COVID-19agatik?

Hala bada, zenbat pertsona berrinfektatu dira?

Osasun Departamentuaren erregistro eta datu-iturrien arabera, posible al da jakitea COVID-19agatik berrinfektaturiko pertsona horietatik zenbat zeuden txertatuta eta zer txerto mota jaso zuten?

Hala bada, zenbatek zeukaten txertaketaren pautu osoa? Eta txerto mota bakoitzeko, zenbatek?

Iruñean, 2021eko urriaren 18an

Foru parlamentaria: Cristina Ibarrola Guillén

Galdera, espetxe-osasungintzan Nafarroako Gobernuak egindako gastuari buruzkoa.

CRISTINA IBARROLA GUILLÉN ANDREAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2021eko urriaren 25ean egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Cristina Ibarrola Guillén andreak aurkezturiko galdera, espetxe-osasungintzan Nafarroako Gobernuak egindako gastuari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 194. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2021eko urriaren 25ean

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Gorteetako kide den eta Navarra Suma (NA+) talde parlamentarioari atxikita dago-

en Cristina Ibarrola Guillén andreak, Legebiltzarren Erregelamenduaren 194. artikuluan ezarritakoaren babesean, galdera hau aurkezten du, idatziz erantzun dakion:

1.- 2020an zenbateko gastua egin du Nafarroako Gobernuak espetxe-osasungintzan? Erantsi gastu horren xehakapena.

2.- 2021erako zenbateko itxiera-gastua aurreikusten da? Erantsi itxiera-gastuaren xehakapena.

3.- 2022rako zenbateko aurrekontua aurreikusten da?

4.- Nafarroako Gobernuak zer prestazio berri sartuko ditu legegintzaldi honetan? Erantsi kronograma.

Iruñean, 2021eko urriaren 18an

Foru parlamentaria: Cristina Ibarrola Guillén

Galdera, Valle del Roncal Ezintasunaren Arreta Integralerako Zentroa berritzeko proiektuari buruzkoa.

MARTA ÁLVAREZ ALONSO ANDREAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2021eko urriaren 25ean egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Marta Álvarez Alonso andreak aurkezturiko galdera, Valle del Roncal Ezintasunaren Arreta Integralerako Zentroa berritzeko proiektuari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 194. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2021eko urriaren 25ean

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Gorteetako kide den eta Navarra Suma (NA+) talde parlamentarioari atxikita dagoen Marta Álvarez Alonso andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduko 188. artikuluan eta hurrengoe-

tan ezarritakoaren babesean, galdera hau aurkeztu du, idatziz erantzun dakion:

Nafarroako Gobernuak Gizarte Eskubideen eta 2030 Agendaren Ministerioarekin Europako Suspertze eta Erresilientzia Mekanismoko funtsen kargura proiektuak gauzatzeko sinatutako hitzarmeneko 1. proiektuan agertzen dira Valle del Roncal Ezintasunaren Arreta Integralerako Zentroa (CAIDIS) berritzeko lanak. Deskribapenean esaten denez, postu kopurua 70era murriztu nahi da.

Horri buruz, hauxe jakin nahi dut:

1. Zer egiteko asmoa du departamentuak egotza horretan jarraitzeko aukerarik izanzen ez luketen 34 pertsonekin?

2. Urtean zer aurrekontu- eta finantzaketa-aurreikuspen darabil departamentuak lan horiek egiteko? Halakorik baldin bada, finantzaketaren aurreikuspen ekonomikoa eta egutegi-aurreikuspena jaso nahi ditugu.

Iruñean, 2021eko urriaren 18an

Foru parlamentaria: Marta Álvarez Alonso

Galdera, El Vergel Egoitza berritzeko proiektuari buruzkoa.

MARTA ÁLVAREZ ALONSO ANDREAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2021eko urriaren 25ean egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Marta Álvarez Alonso andreak El Vergel Egoitza egokitzeko berritzeko buruz aurkezturiko galdera.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 194. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2021eko urriaren 25ean

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Gorteetako kide den eta Navarra Suma (NA+) talde parlamentarioari atxikita dagoen Marta Álvarez Alonso andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduko 188. artikuluan eta hurrengoetan ezarritakoaren babesean, galdera hau aurkeztu du, idatziz erantzun dakion:

Nafarroako Gobernuak Gizarte Eskubideen eta 2030 Agendaren Ministerioarekin Europako Suspertze eta Erresilientzia Mekanismoko funtsen kargura proiektuak gauzatzeko sinatutako hitzarmeneko 1. proiektuan agertzen dira El Vergel egoitza berritzeko lanak. Deskribapenean esaten denez, 15 pertsonarainoko unitateak sortu nahi dira.

Horri buruz, hauxe jakin nahi dut:

1. Proiektu hori gauzatzearekin El Vergel egoitzan zenbat postuko murrizketa egingen dela aurreikusten du Departamentuak? Aurreproiektua idatzita al dago jadanik?

2. Postu kopurua murrizten bada, departamentuak nola artatuko ditu egoitza horretan posturik gabe geratzen diren pertsonak?

3. Urtean zer aurrekontu- eta finantzaketa-aurreikuspen darabil departamentuak lan horiek egiteko? Halakorik baldin bada, finantzaketaren aurreikuspen ekonomikoa eta egutegi-aurreikuspena jaso nahi ditugu.

Iruñean, 2021eko urriaren 18an

Foru parlamentaria: Marta Álvarez Alonso

Galdera, Elizondoko Francisco Joaquín Iriarte Egoitzaren berritzeko lanei eta finantzaketari buruzkoa.

MARTA ÁLVAREZ ALONSO ANDREAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2021eko urriaren 25ean egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Marta Álvarez Alonso andreak aurkezturiko galdera, Elizondoko Francisco Joaquín Iriarte Egoitzaren berritzeko lanei eta finantzaketari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 194. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2021eko urriaren 25ean

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Gorteetako kide den eta Navarra Suma (NA+) talde parlamentarioari atxikita dagoen Marta Álvarez Alonso andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduko 188. artikuluan eta hurrengoetan ezarritakoaren babesean, galdera hau aurkeztu du, idatziz erantzun dakion:

Iragan irailaren 21ean, Eskubide Sozialetako kontseilaria eta Pertsonen Autonomiarako eta Garapenerako Nafarroako Agentziako zuzendari kudeatzailea Elizondoko Francisco Joaquín Iriarte egoitzara joan ziren bisitan, egoitza berritzeko

lanei eta horien finantzaketari buruz hitz egiteko. Gai horretaz, hauxe jakin nahi dut:

Bisita horretatik Nafarroako Gobernuak zer ondorio atera du egoitza berritzeari dagokionez? Lan horiek egiteko zer aurrekontu- eta finantzaketa-aurreikuspen aurkeztu du Udalak edo dauka departamentuak? Halakorik baldin bada, finantzaketaren aurreikuspen ekonomikoa eta egutegi-aurreikuspena jaso nahi ditugu.

Iruñean, 2021eko urriaren 18an

Foru parlamentaria: Marta Álvarez Alonso

Galdera, Irunberriko San Isidro Egoitza berritzeko proiektuari buruzkoa.*MARTA ÁLVAREZ ALONSO ANDREAK EGIN DU*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2021eko urriaren 25ean egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Marta Álvarez Alonso andreak Irunberriko San Isidro Egoitza berritzeko proiektuari buruz aurkezturiko galdera.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 194. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2021eko urriaren 25ean

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Gorteetako kide den eta Navarra Suma (NA+) talde parlamentarioari atxikita dagoen Marta Álvarez Alonso andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduko 188. artikuluan eta hurrengoetan ezarritakoaren babesean, galdera hau aurkeztu du, idatziz erantzun dakion:

Nafarroako Gobernuak Gizarte Eskubideen eta 2030 Agendaren Ministerioarekin Europako

Suspertze eta Erresilientzia Mekanismoko funtsen kargura proiektuak gauzatzeko sinatutako hitzarmeneko 1. proiektuan agertzen dira Irunberriko San Isidro egoitza berritzeko lanak. Deskribapenean esaten denez, bizikidetza-unitate berezituak sortu nahi dira.

Horri buruz, hauxe jakin nahi dut:

1. Proiektu hori gauzatzearekin Departamentuak San Isidro egoitzan zenbat postuko murrizketa egitea aurreikusten du? Idatzitako aurreproiekturik ba al dago jadanik?

2. Zenbat pertsonarentzat izanen dira egoitza horretako bizikidetza-unitateak?

3. Postu kopurua murrizten bada, departamentuak nola artatuko ditu egoitza horretan posturik gabe geratuko diren pertsonak?

4. Urteko aurrekontuari eta finantzaketari dagokienez, zer aurreikuspen darabil departamentuak? Halakorik baldin bada, finantzaketaren aurreikuspen ekonomikoa eta egutegi-aurreikuspena jaso nahi ditugu.

Iruñean, 2021eko urriaren 18an

Foru parlamentaria: Marta Álvarez Alonso

Galdera, Santo Domingo Egoitza berritzeko proiektuari buruzkoa.

MARTA ÁLVAREZ ALONSO ANDREAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2021eko urriaren 25ean egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Marta Álvarez Alonso andreak Santo Domingo Egoitza berritzeko proiektuari buruz aurkezturiko galdera,koa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 194. artikulua agintutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2021eko urriaren 25ean

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Gorteetako kide den eta Navarra Suma (NA+) talde parlamentarioari atxikita dagoen Marta Álvarez Alonso andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduko 188. artikuluan eta hurrengoetan ezarritakoaren babesean, galdera hau aurkeztu du, idatziz erantzun dakion:

Nafarroako Gobernuak Gizarte Eskubideen eta 2030 Agendaren Ministerioarekin Europako Suspertze eta Erresilientzia Mekanismoko funtsen kargura proiektuak gauzatzeko sinatutako hitzarmeneko 1. proiektuan agertzen dira Santo Domingo egoitza berritzeko lanak. Deskribapenean esaten denez, postu kopurua murriztu eta 15-16 pertsonako bizikidetz-unitateak sortu nahi

dira, gehienbat banakako gelek. Halaber, oztopo arkitektonikoak kendu eta klimatizazio-sistema aldatu nahi da, efizientzia energetikoa hobetzeko.

Bestalde, hedabideetan irakurri dugu Eskubide Sozialetako Departamentua aztertzen ari dela Santo Domingo zahar-etxe egoiliarak Oncineda egoitzara behin betiko eramateko aukera; hala, egoitza hau zahar-etxe bihurtuko litzateke.

Horri buruz, hauxe jakin nahi dut:

1. Zein da Eskubide Sozialetako Departamentuak hartutako erabakia: Santo Domingo zahar-etxea berritzea, ala hura abandonatu eta Oncineda egoitzan zahar-etxe berria egitea? Idatzitako aurreproiekturik ba al dago jadanik?

2. Bigarren aukeraren alde egin bada, departamentuaren ustez aukera horrek urratu egiten al du Gizarte Eskubideen Ministerioarekin sinaturiko hitzarmenean jasotakoa? Erantzuna arrazoitzeko eskatzen da.

3. Urteko zer aurrekontu- eta finantzaketa-aurreikuspen darabil departamentuak aukera baterako eta besterako? Halakorik baldin bada, finantzaketaren aurreikuspen ekonomikoa eta egutegi-aurreikuspena jaso nahi ditugu.

4. Aurreikuspenen arabera, zenbat egoiliar-postu izanen dira azkenean, aukera batean eta bestean?

Iruñean, 2021eko urriaren 18an

Foru parlamentaria: Marta Álvarez Alonso

Galdera, Baztango Udalak antolatutako “Berdintasuna eta genero ikuspegia toki entitateen politika publikoetan. Ikastaro praktikoa” izeneko ikastaroari buruzkoa.

ISABEL OLAVE BALLARENA ANDREAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2021eko urriaren 25ean egindako bilkuran, Eledunen Baztarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Isabel Olave Ballarena andreak aurkezturiko galdera, Baztango Udalak antolatutako “Berdintasuna eta genero ikuspegia toki entitateen politika publikoetan. Ikastaro praktikoa” izeneko ikastaroari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 194. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2021eko urriaren 25ean

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Gorteetako kide den eta Navarra Suma talde parlamentarioari atxikita dagoen Isabel Olave Ballarena andreak, Legebiltzarraren Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, galdera hau aurkeztu du, idatziz erantzun dakion.

Pasa den irailean berdintasunaren arloko prestakuntza-ikastaro hau eman dute Baztango Udalean:

Berdintasuna eta genero ikuspegia toki entitateen politika publikoetan. Ikastaro praktikoa. Ikastaro hau Nafarroako Udal eta Kontzejuen Federazioak eskaini die Baztango langile politikoei eta zinpeko alkateei.

Ikastaroa euskaraz bakarrik eskaini da, eta gaztelaniaz ere emateko eskaera formala aurkeztu da. Tokiko Berdintasun Unitatearen erantzuna hauxe izan da: “euskararen ordenantza betetze aldera, aztertu ahalko da beste ikastaro bat egiteko aukera (aurrerago eta berdintasun planaren ebaluazio eta birdiseinatze prozesuaren barruan); ikastaroa euskaraz emanen litzateke eta materialak ele bitan, ikastaroaren edukien jarraipena errazte aldera”.

Zure ustez, gaztelaniazko prestakuntza ukatzen duen jarduketa hori bat al dator ordezkari politikoei Nafarroan berdintasunaren arloko prestakuntza Nafarroako Udal eta Kontzejuen Federazioaren antolaketapean jasotzeko duten eskubidearekin? Federazioak horretarako funts publikoak jasotzen ditu.

Nafarroan, 2021eko urriaren 19an

Foru parlamentaria: Isabel Olave Ballarena

Galdera, Beola auzoko lotunerako konponbide teknikoari buruzkoa.

ISABEL OLAVE BALLARENA ANDREAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2021eko urriaren 25ean egindako bilkuran, Eledunen Baztarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Isabel Olave Ballarena andreak Beola auzoko lotunerako konponbide teknikoari buruz aurkezturiko galdera.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 194. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2021eko urriaren 25ean

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Gorteetako kide den eta Navarra Suma talde parlamentarioari atxikita dagoen Isabel Olave Ballarena andreak, Legebiltzarraren Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, galdera hau aurkeztu du, idatziz erantzun dakion.

Nafarroako Gobernuak zer konponbide tekniko emanen dio Beola auzoak N-121-A errepidearekin bat egiteko lotuneari buruz Almandozko herriak eta Baztango Udalak azaldutako arazoari?

Nafarroan, 2021eko urriaren 20an

Foru parlamentaria: Isabel Olave Ballarena

Galdera, Vianako Andre Maria eliza zaharberritzeko obrei buruzkoa.**MAIORGA RAMÍREZ ERRO JAUNAK EGIN DU**

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2021eko urriaren 25ean egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Maiorga Ramírez Erro jaunak Vianako Andre Maria eliza zaharberritzeko obrei buruz aurkezturiko galdera.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 194. artikulua agintu-takoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2021eko urriaren 25ean

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

EH Bildu Nafarroa talde parlamentarioko foru parlamentari Maiorga Ramírez Erro jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau egiten dio Nafarroako Gobernuari, idatziz erantzun dezan:

- Nafarroako Gobernuak zer jarrera du eta noraino inplikatu nahi du Vianako Andre Maria eliza zaharberritzeko obrei dagokienez?

Iruñean, 2021eko urriaren 20an

Foru parlamentaria: Maiorga Ramírez Erro

Galdera, enplegu inklusiboko ekimenak aurkezteko eta gauzatzeko epeari buruzkoa.

MARÍA ISABEL GARCÍA MALO ANDREAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2021eko urriaren 25ean egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea María Isabel García Malo andreak enplegu inklusiboko ekimenak aurkezteko eta gauzatzeko epeari buruz aurkezturiko galdera.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 194. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2021eko urriaren 25ean

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Gorteetako kide den eta Navarra Suma talde parlamentarioari atxikita dagoen Maribel García Malo andreak honako galdera hau aurkeztu du, Eskubide Sozialetako kontseilariak idatziz erantzun dezan:

Iragan ekainaren 2an, Nafarroako Enplegu Zerbitzuak enplegu programa berri bat aurkeztu zuen, laneratze-zailtasun bereziak dauzkaten pertsonentzako. Enplegu inklusiboko ekintza horretara –irabazi asmorik gabeko entitateentzako edo toki entitateentzako dirulaguntzen bidez kudeatuko da– 600.000 euro bideratuko dira.

Irabazi asmorik gabeko entitateek eta toki entitateek zer egunetara arte aurkez ditzakete enplegu inklusiboko ekimenak? Zer egunetara arte exekuta ditzakete horiek?

Iruñean, 2021eko urriaren 21ean

Foru parlamentaria: Maribel García Malo

Galdera, Nafarroako Enplegu Zerbitzuko enplegu inklusiboko ekintzaren eskari- eta gastu-aurreikuspeni buruzkoa.

MARÍA ISABEL GARCÍA MALO ANDREAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2021eko urriaren 25ean egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea María Isabel García Malo andreak aurkezturiko galdera, Nafarroako Enplegu Zerbitzuko enplegu inklusiboko ekintzaren eskari- eta gastu-aurreikuspeni buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 194. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2021eko urriaren 25ean

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Gorteetako kide den eta Navarra Suma talde parlamentarioari atxikita dagoen Maribel García Malo andreak honako galdera hau aurkeztu du, Eskubide Sozialetako kontseilariak idatziz erantzun dezan:

Iragan ekainaren 2an, Nafarroako Enplegu Zerbitzuak enplegu programa berri bat aurkeztu zuen, laneratze-zailtasun bereziak dauzkaten pertsonentzako. Enplegu inklusiboko ekintza horretara –irabazi asmorik gabeko entitateentzako edo toki entitateentzako dirulaguntzen bidez kudeatuko da– 600.000 euro bideratuko dira.

Nafarroako Enplegu Zerbitzuak zer eskari-aurreikuspen darabil? Zer gastu-aurreikuspen?

Iruñean, 2021eko urriaren 21ean

Foru parlamentaria: Maribel García Malo

Galdera, enplegu-zentro berezientzako laguntzen zenbatekoari eta irizpideei buruzkoa.

MARÍA ISABEL GARCÍA MALO ANDREAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2021eko urriaren 25ean egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea María Isabel García Malo andreak enplegu-zentro berezientzako laguntzen zenbatekoari eta irizpideei buruz aurkezturiko galdera.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 194. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2021eko urriaren 25ean

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Gorteetako kide den eta Navarra Suma talde parlamentarioari atxikita dagoen Mari-

bel García Malo andreak honako galdera hau aurkeztu du, Eskubide Sozietako kontseilariak idatziz erantzun dezan:

2021eko aurrekontuetan 700.000 euroko partida bat ageri da –"COVID-19a. Enplegu-zentro berezien oreka finantzariako laguntzak"– enplegu-zentro berezien finantza-oreka lortzeko. Partida horren aurrekontu bateratua 0 eurokoa da une honetan.

2021eko aurrekontuan, bestalde, "COVID-19a. Enplegu-zentro berezientzako laguntzak" izeneko partida berri bat sartu da, 700.000 euro dituen.

Nafarroako Enplegu Zerbitzuak zenbat diru aurreikusten du ordaintzea enplegu-zentro berezi bakoitzari (zehaztu zer zentrori), eta zer irizpideetan oinarrituko da?

Iruñean, 2021eko urriaren 21ean

Foru parlamentaria: Maribel García Malo

Galdera, enplegu-zentro berezientzako laguntzak ebazteko eta ordaintzeko datei buruzkoa.

MARÍA ISABEL GARCÍA MALO ANDREAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2021eko urriaren 25ean egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea María Isabel García Malo andreak enplegu-zentro berezientzako laguntzak ebazteko eta ordaintzeko datei buruz aurkezturiko galdera.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 194. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2021eko urriaren 25ean

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Gorteetako kide den eta Navarra Suma talde parlamentarioari atxikita dagoen Maribel García Malo andreak honako galdera hau aurkeztu du, Eskubide Sozietako kontseilariak idatziz erantzun dezan:

2021eko aurrekontuetan 700.000 euroko partida bat ageri da –"COVID-19a. Enplegu-zentro berezien oreka finantzariako laguntzak"– enplegu-zentro berezien finantza-oreka lortzeko. Partida horren aurrekontu bateratua 0 eurokoa da une honetan.

2021eko aurrekontuan, bestalde, "COVID-19a. Enplegu-zentro berezientzako laguntzak" izeneko partida berri bat sartu da, 700.000 euro dituen.

Nafarroako Enplegu Zerbitzuak zer egunetan aurreikusten du laguntza horiek ebaztea? Zer egunetan aurreikusten du laguntza horiek ordaintzea?

Iruñean, 2021eko urriaren 21ean

Foru parlamentaria: Maribel García Malo

Galdera, enplegu-zentro berezientzako laguntzetarako partiden aurrekontu-aldaketei buruzkoa.

MARÍA ISABEL GARCÍA MALO ANDREAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2021eko urriaren 25ean egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea María Isabel García Malo andreak aurkezturiko galdera, enplegu-zentro berezientzako laguntzetarako partiden aurrekontu-aldaketei buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 194. artikulua agintakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2021eko urriaren 25ean

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Gorteetako kide den eta Navarra Suma talde parlamentarioari atxikita dagoen Maribel García Malo andreak honako galdera hau aurkeztu du, Eskubide Sozialetako kontseilariak idatziz erantzun dezan:

2021eko aurrekontuetan 700.000 euroko partida bat ageri da –"COVID-19a. Enplegu-zentro berezien oreka finantzariako laguntzak"– enplegu-zentro berezien finantza-oreka lortzeko. Partida horren aurrekontu bateratua 0 eurokoa da une honetan.

2021eko aurrekontuan, bestalde, "COVID-19a. Enplegu-zentro berezientzako laguntzak" izeneko partida berri bat sartu da, 700.000 euro dituen.

Zerk justifikatzen du aurrekontu-aldaketa horiek egitea?

Iruñean, 2021eko urriaren 21ean

Foru parlamentaria: Maribel García Malo

Galdera, “COVID-19a. Enplegu-zentro berezientzako laguntzak” partidarako aurreikusitako jarduketei buruzkoa.

MARÍA ISABEL GARCÍA MALO ANDREAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2021eko urriaren 25ean egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea María Isabel García Malo andreak aurkezturiko galdera, “COVID-19a. Enplegu-zentro berezientzako laguntzak” partidarako aurreikusitako jarduketei buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 194. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2021eko urriaren 25ean

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Gorteetako kide den eta Navarra Suma talde parlamentarioari atxikita dagoen Maribel García Malo andreak honako galdera hau aurkeztu du, Eskubide Sozialetako kontseilariak idatziz erantzun dezan:

2021eko aurrekontuetan 700.000 euroko partida bat ageri da –“COVID-19a. Enplegu-zentro berezien oreka finantzariako laguntzak”– enplegu-zentro berezien finantza-oreka lortzeko. Partida horren aurrekontu bateratua 0 eurokoa da une honetan.

2021eko aurrekontuan, bestalde, “COVID-19a. Enplegu-zentro berezientzako laguntzak” izeneko partida berri bat sartu da, 700.000 euro dituen.

Zer egin nahi da ekitaldi honetan partida hori baliatuta?

Iruñean, 2021eko urriaren 21ean

Foru parlamentaria: Maribel García Malo

Galdera, haur eta gazteen osasun mentala artatzeko psikiatren agendak berrantolatzeari buruzkoa.

CRISTINA IBARROLA GUILLÉN ANDREAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2021eko urriaren 25ean egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Cristina Ibarrola Guillén andreak aurkezturiko galdera, haur eta gazteen osasun mentala artatzeko psikiatren agendak berrantolatzeari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 194. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2021eko urriaren 25ean

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Gorteetako kide den eta Navarra Suma talde parlamentarioari atxikita dagoen Cristina Ibarrola Guillén andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, galdera hau aurkeztu du, idatziz erantzun dakion:

Nola berrantolatu dira haur eta gazteen osasun mentala artatzeko psikiatren agendak?

Iruñean, 2021eko urriaren 14an

Foru parlamentaria: Cristina Ibarrola Guillén

